

**2011KO OTSAILAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Laua.

**HILABETEA:** Otsaila.

**URTEA:** Bi mila eta hamaika.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzia

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:**

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Malu Valles Fernandez
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- M<sup>a</sup> Pilar Vispo Chamosa
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEA:** Manuela Uranga Segurola

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2010eko abenduaren 3ko aktaren onespena.

2010eko abenduaren 3an, egindako ohiko batzaraldiaren aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak ez du akta onartu bertan legez kanpo dagoen plataformak bileran parte hartu duelako.

Beste guztiek aktarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ, PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE, EB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin akta onartu da.

## **2.- ARAU SUBSIDIARIOAK:**

### **a.- Ingurune berdea. Testu Bateratuaren onespena.**

Alkate jaunak Aitor Aldasoro jaunari hitza eman dio eta honek hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

***“Gaia: landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiario-aldaketaren Testu Bateratuari onespena ematea.***

*1.- 2010eko urriaren 29an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren bidez, landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespena ematea erabaki zuen eta idazlan-taldeari errekeritu zion Testu Bateratua aurkezteko, 2010eko urriaren 4ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenean adierazitako xehetasunak jasotzen dituena.*

*2.- Errekerimendu hori betez, gaur aurkeztu da aipatutako Testu Bateratua.*

*Horren ondorioz, hirigintza batzordeak, Udalbatza Osoari ondorengo erabakia proposamena egin dio:*

**Lehenik.** *Landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiario-aldaketaren Testu Bateratua onartzea.*

**Bigarren.** *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen kopia bat igortzeaz gain, espediente osoa behar bezala diligenziaz bidaltzea paperean eta baita aldaketaren dokumentua informatikoki ere diligenziaz bidaltzea.*

**Hirugarren.** Gipuzkoako Foru Aldundia ere dokumentua diligentziaz bidaltzea, foru erregistroan gordetzeko.

**Laugarren.** Behin betiko onespeneren erabakia probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratzea eta onartutako xehetasunez gain ingurumenaren gaineko eraginaren Azterlana aintzakotzat hartzeari buruzko aitormena ere, Gipuzkoako Foru Aldundian argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**b.- Zazpiturrieta, 4. area, Loinazpe, 19. area eta arau urbanistikoari (54. artikulua) buruzko Arau Subsidiarioen aldaketa.**

Alkate jaunak Aitor Aldasoro jaunari hitza eman dio eta honek hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari hasierako onspena ematea:**

**4 area: Zazpiturrieta.**

**19 area: Loinazpe.**

**54. artikulua: normas urbanísticas.**

Onartzeko ondorengoa aurkeztu da:

**“ZAZPITURRIETA”, 4. AREA**

Merkatal erabilerari emandako 495 m<sup>2</sup>(t), aldatzea proposatzen da, babes ofizialeko etxebizitzak izan daitezen.

Erabilera desberdinentzat esleitutako eraikigarritasunetik, merkatal erabilerako 495m<sup>2</sup>(t), kentzen dira eta babes ofizialerako etxebizitzetara esleitzen zaie.

Urbanizazio betebeharraren moduan, eremuaren irekieraren hobetzeko igogailua egitea aurreikusten da. Igogailu horren finantziaketa jabetza pribatuaren eta administrazioaren artean hitzartu daiteke.

**“LOINAZPE” 19. AREA**

Haurreskola eremuan kokatutako hezkuntza ekipamendu (E-4) lursaila (250m<sup>2</sup>) eta eraikina (106m<sup>2</sup>(t)) handitzea eta eremu horretan dauden aurrefabrikatu eraikinak (250m<sup>2</sup>(t)) kentzea proposatzen da.

*Aldaketa, Florencio Axpe plazako antolamendu xehatua zuzentzeko aprobetxatzen da. Lurzoruan aparkalekua dago eta emakida administratiboa da eta horren ondorioz, toki sistemetako gune libreak bezala jabari publikokoak dira eta ez da gaur egun Arau Subsidiarioetan azaltzen den moduan, zoru pribatua erabilera publiko zortasunarekin.*

#### ARAU URBANISTIKOEN 54. ARTIKULUA.

*Egungo legeriaren arabera, egoiliar eraikinek iresgarritasuna izateko baldintza testuan azaltzea aurreikusten da, obrak egiteko ondasun eta jabeen desjabetzea baimenduz, beharrezkoa bada.*

*Ekainaren 30eko 2/2006, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 177. artikuluan, hirigintza arrazoiengatik desjabetu daitekeen kasuetako bat aurreikusten da.*

#### **OINARRI JURIDIKOAK**

- *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104 artikulua eta honekin lotuta dauden 90 eta hurrengo artikulua, izapidetzeari dagokionean.*
- *Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 22,1c) artikulua, organoaren eskuduntzari dagokionean.*
- *Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 47,3i) artikulua, onartzeko quorumari dagokionean.*

*Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*

**Lehenik.** *Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari hasierako onespena ematea, ondorengoari buruz:*

*4 area: Zazpiturrieta.*

*19 area: Loinazpe.*

*54. artikulua: normas urbanísticas.*

**Bigarren.** *Erabakia jendaurrean jartzea hilabeteko epean, dagokion iragarkia, lurralde historikoaren aldizkarian, Diario Vasco eta Berrian argitaratuz."*

*Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:*

*PP, EB eta ALKARBIDEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.*

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Entre las modificaciones propuestas se encuentra la del área 19, y si bien en la comisión de urbanismo me pronuncié a favor, anteriormente ya manifestamos la discrepancia de nuestro partido a la ampliación de la Haurreskola, tal y como se presentó el proyecto en su momento tampoco fue apoyado por nuestro grupo. Aunque las normas lo que hacen es cambiar la calificación jurídica del terreno, de manera que posteriormente podríamos posicionarnos en contra, mi grupo considera que es oportuno marcar la pauta desde ahora, y por ello nos vamos a abstener.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (PSE-EE/PSOE)

Beraz, gehiengo absolutuarekin proposamena onartu da.

### **3.- HITZARMENA.** INDARekin hitzarmena aldatzea.

Alkate jaunak Aitor Aldasoro jaunari hitza eman dio eta honek hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

*“2007ko abenduaren 28ko datarekin, Udalbatza Osoak honekin batera doan INDAR enpresarekin sinatu beharreko hitzarmenari hasierako onespena eman zitzaion.*

*Hitzarmena jendaurrean jarri zen 2008ko urtarrilaren 18ko GAOean iragarkia argitaratuz eta iragaki horretan adierazi zen 20 eguneko epean alegaziorik aurkezten ez bazen behin betiko onartua izango zela.*

*Epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu eta nahiz eta hitzarmena behin betiko onartua izan, Udalarekin zerikusia ez duten arrazoiengatik ez zen sinatu. Arrazoi horiek ondorengoak ziren: INDAR enpresak onartutako terrenoak lagatzeko konpromisoa bermatzea.*

*Orain, INDARek eskatu du hirugarren estipulazioaren B atala aldatzea. Udalaren aldetik ere hitzarmena egungo egoerara egokitzeko beharra ikusten da.*

*Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:*

**Lehenik.** INDAR ELECTRIC, S.L.rekin sinatu beharreko hitzarmena aldatzea, honekin batera doan dokumentuan adierazten den moduan.

**Bigarren.** Hogei lanegunean jendaurrean jartzea eta epe horretan ez balego inolako alegaziorik behin betiko onartuko da.”

Hitzarmenaren zirriborroa:

“Beasainen bi mila hamaikako \_\_\_\_\_-ren \_\_\_\_\_(e)an .

**BERTARATUAK:**

*Alde batetik, Patxi Plazaola Muguruza jauna, Beasaingo Udalaren ordezkaria. Ekintza honetarako ahalmena 2011ko ....ren.....an Udalbatza Osoak hartutako erabakiak ematen dio.*

*Beste aldetik, Alez Belaustegui Foronda jauna, adin nagusikoa eta 30.629.465 C, NA duena, INDAR ELECTRIC, S.L.-ren izenean eta ordezkartzan. Enpresa honen egoitza soziala Beasainen dago, Txarako Industrialdean eta IFK, ondorengo da: B-20597993 da. Ekintza honetarako baimena, Jose Antonio Isasi Notario aurrean 201eko otsailaren 17an egindako eta 758 protokolo zenbakia duen ahalmen eskriturak ematen dio*

### **AZALTZEN DUTE:**

*I.- 2007ko abenduaren 28ko datarekin, Udalbatza Osoak INDAR enpresarekin sinatu beharreko hitzarmenari hasierako onespena eman zion.*

*II.- Hitzarmena jendaurrean jarri zen 2008ko urtarrilaren 18ko GAOean iragarkia argitaratuz eta iragaki horretan adierazi zen 20 eguneko epean alegaziorik aurkezten ez bazen behin betiko onartua izango zela.*

*Epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu eta nahiz eta hitzarmena behin betiko onartua izan, Udalarekin zerikusia ez duten arrazoiengatik ez zen sinatu. Arrazoi horiek ondorengoak ziren: INDAR enpresak onartutako terrenoak lagatzeko konpromisoa bermatzea.*

*III.- Orain, INDARek eskatu du hirugarren estipulazioaren B atala aldatzea. Udalaren aldetik ere hitzarmena egungo egoerara egokitzeko beharra ikusten da.*

*IV.- Bi aldeek elkarri aitortzen diote kontratatze ahalmena eta horren ondorioz erabaki dute, hitzarmen hau sinatzea ondorengo*

### **ESTIPULAZIOAREKIN**

**LEHENIK.** Hitzarmen honen helburua hurrengo puntuak ahalbideratzeko beharrezkoak diren mekanismoak abiaraztea da:

1.- INDAR ELECTRIC, S.L. merkantilak, sorgailu eolikoekin makineria fabrikatzera bideratutako jarduera industrial baldintza hobetan egin ahal izatea.

2.- S-7 Sektorearen hirigintza ordenamenduak, bere baldintza funtzional eta ingurumen baldintzen ebazpen egokia berma dezala, bere mugen barruan eta gertu duen lur inguruarengan.

**BIGARREN.** Orain arte aipatutako helburuak lortzeko, Beasaingo Udalak:

- *Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespena eman dio (2009-10-02), INDAR ELECTRIC, S.L.ek eskuratutako terrenoak eta 2007. urtean ez hiritargarriak zirenak, urbanizagarriak izateko "industria" kalifikazioarekin, terreno horietan eraikin berria kokatu ahal izateko.*
- *Eremu honetako Egitasmo Partzialaren aldaketari (2009-11-27), Urbanizatzeko Jarduketa Proiektuari (2009-12-09) eta Kontzertazio Hitzarmenari (2010-11-22) behin betiko onespena eman zaie.*

**HIRUGARREN.** Kontzertazio hitzarmena sinatu ondoren, Beasaingo Udalak ondorengo konpromisoa hartzen du:

- *INDAR ELECTRIC, S.L.ek aurkeztutako erreparzelazio proiektuari behin betiko onespena ematea.*
- *INDAR ELECTRIC, S.L.ek aurkeztutako Hirigintza Proiektuaren aldaketa izapidetzea eta onartzea.*

**LAUGARREN.** INDAR ELECTRIC, S.L.ek konpromiso hauek hartzen ditu:

- *Aldatutako eremuari dagokion hirigintza aprobetxamenduaren %15a eskuratzea.*
- *Lur arloa aldatzea eta urbanizatzea eta Industria Jarduera Lizentzia eskatzea, enpresa ekimena era egokian eta behin betikoz garatzeko. Egin diren pabilioi edo eraikuntza beharrianen arabera egingo diren pabilioi guztien eraikuntza lizentzia eskatzea.*
- *Industria Sektore berriaren mugen barruan sartzeko ez diren eta N-1 bide-trazaketa berria gauzatzera bideratu beharko diren beharrezko lurrak Beasaingo Udalarari ematea. INDAR lur horien jabea da 2007ko azaroaren 22ko eskrituraren bidez. Lurren lagatzea N-1 bide-trazaketa berriaren gauzatzeko proiektua onartzen den unean formalizatuko da eta eskritura gastuak Udalak ordainduko ditu.*

*Eta guztiaren adostasun frogatza, bildutakoek bikoizturik sinatu dute dokumentua goian aipatutako data eta lekuan."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

PP eta EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Josi Insausti jaunak (ALKARBIDE): "Nosotros vamos a dar un voto favorable pero crítico por la trayectoria en torno a todo lo que concierne a INDAR. En su momento se aceptó un convenio porque se presentó diciendo que se solucionaba lo que ellos planteaban, pero ese convenio no ha sido suscrito. En ese convenio también se hacía mención a que había que hacer frente a los impagos de la empresa, y según me consta algo han debido de

hacer efectivo, pero no en su totalidad, pero si estoy equivocado me corregís. Ahora nos encontramos que hay una modificación, que aunque parece lógico que quien tenga que ceder, los gastos de cesión los asuma el cesionario. No sabemos si este convenio va a ser el definitivo o nos vamos a encontrar que en un futuro quede otra vez en suspenso porque la empresa decide otra cuestión en beneficio propio. Nosotros vamos a dar un sí, pero un sí crítico. No sabemos cual va a ser la evolución, pero tampoco queremos ser un obstáculo y esperamos que se resuelva todo lo que concierne a ese sector. Sin embargo, tenemos dudas de que lo que hoy se apruebe tenga visos de ver la luz.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Hay dos convenios, uno el que se refiere a este punto, y luego hay otro en el que ellos con un cronograma se comprometían a entregar toda los documentos de gestión y de desarrollo. Es verdad que ha habido un retraso, pero sobre todo ha sido por la modificación de Normas. Hace tiempo de que toda la documentación la tienen presentada aquí y está a expensas de que se apruebe, previo depósito del aval para la firma del convenio de concertación. El aprovechamiento liquidado hasta ahora ya lo tienen satisfecho.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Ahora lo que queda es la modificación del proyecto de reparcelación, el proyecto de urbanización y las licencias.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros no vamos a votar a favor. Cuando se presentó anteriormente el convenio, ya manifestamos nuestra discrepancia, y ahora lo que se presenta es más desfavorable hacia el municipio. Al reclasificar más terreno, ellos adquirían mayor volumen y ocupaban un terreno que decían que no iban a usar, pero lo necesitaban para que contabilizara, y si en un futuro Diputación decidiera desdoblarse la N-1, tal vez sería necesario utilizar esos terrenos sobre los que hoy debatimos el coste de la escritura de cesión. Pensamos que técnicamente será difícil que el trazado de la carretera vaya por esos terrenos y en consecuencia manteniendo el criterio que en su día adoptó nuestro partido, votaremos en contra.”

Alkate jaunak (EAJ): “En las actuaciones de compraventas, quien paga las escrituras?. Es una norma general. En aquel momento se puso así y al venir ellos con esta observación que es razonable, es por lo que se propone la modificación. Si ellos ceden, es normal que pague las escrituras quien recibe el terreno. Es razonable y lo que se hace en todos los sitios, aunque es verdad que esa cesión hoy por hoy es hipotética.”

Arantxa Gibelalde andreak (EAJ) esan du INDAR, ordainketetan eguneratuta dagoela.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:



Aldeko botoak: 12 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)  
Aurkako botoak: 4 (PSE-EE/PSOE)  
Abstentzioak: 0

Beraz, gehiengo absolutuarekin proposamena onartu da.

**4.- UDAL ORDENANTZA.** Merkatal lokala egoiliarra izateko arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Alkate jaunak Aitor Aldasoro jaunari hitza eman dio eta honek hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: kontsolidatutako egoiliarra den hiri-zoruaren eremu zehatz batzuetan dauden, hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2010eko uztailaren 9ko Plenoko erabakiaren bidez, merkatal aretoaren erabilera egoiliarrean aldatzeko arautzen ordenantza aldatu zen eta erabaki zen aldaketa horretatik sortzen den etxebizitza tasatuaren prezioa honako hau izango zela: Eusko Jaurlaritzak Beasainen babes ofizialeko etxebizitzetarako ezartzen duen gehienezko prezioaren modulua bider 1,7 koefizientetik sortzen zena.

2.- 2010eko azaroaren 3ko Aginduak, babes ofizialeko eta etxebizitza tasatuen prezioa kalkulatzeko beste modu bat aurreikusten du eta Udalak etxebizitza tasatuentzat araudirik ez duenez, bidezkoa ikusten da udal-tasatuen etxebizitzen prezioa, etxebizitza tasatu autonomikoek dutenen berdina izatea.

3.- Bestalde bidezkoa ikusi da baita ere etxebizitzen esleipen prozedurari buruzko 8. artikulua aldatzea. Artikulu honek esleipen prozeduran parte hartzeko ondorengo baldintza ipintzen du: jabeak saltzeko jakinarazpena egiten duen aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen Etxebiden inskribatuta egotea. Gerta liteke, ordea, etxebizitza saltzeko jabeak egiten duen jakinarazpena eta esleipena egiten den ekitaldi ekonomikoa berdina ez izatea. Horren ondorioz, esleipen aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen inskribatuta egotea, errealitateari hobeto doitu daitekeela kontsideratzen da eta gainera honek suposatu dezake zozketan parte hartu dezaketen persona-kopurua handiagoa izan daitekeela.

Horren onndorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Ordenantzaren 8. artikulua eta hitzarmenaren zazpigarren estipulazioa prezioari eta esleipen-prozedurari dagokionean hau da:

- Merkatal lokalaren erabilera egoiliarrean bihurtzeko aldatzen denean, sortzen den etxebizitza tasatuaren prezioa, Euskal Herriko legeriak une horretan etxebizitza tasatu autonomikoentzat finkatzen duena, izango da.

- Etxebizitza tasatuen eskatzaileak Etxebiden inskribatuta egon beharko dute, esleipen aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen.

**Bigarren.** *Bi aldaketa hauek hasierako onespen izaera dute. Beraz, erabakia jendaurrean jarri behar da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz 30 laneguneko epean bidezkoak diren erreklamazioak aurkezteko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, erabakia behin betikoa bihurtuko da.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Una honetan, Andoni Antxia jaunak hitza eskatu du eta Alkate jaunak eman ondoren adierazi du, beraien ustetan 40.000.000 pezeta inguru etxebizitza babestuentzat gehiegi dela.

Alkate jaunak erantzun dio esanez araudia aldatu egin dela eta Eusko Jaurlaritza dela, etxe babestuen prezio finkatzen duena eta 75m<sup>2</sup> etxebizitza batentzat, 33 milioi pezeta ingurukoa dela.

Aldez aurretik hitza eskatuta, Julio Herreros jaunak ondorengo dio: ““Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**5.- KONTRATUAK LUZATZEA:** GOXARA eta LORRATZ ELKARTEArekin kontratuak luzatzea, zerbitzu hauek emateko:

- Urbialdeko eguneko zentroa.

Alkate jaunak, Malu Valles, gizarte-ongizate batzordeburuari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

*“Loinatz Eguneko Zentroa kudeatzeko Goxara S.L. enpresarekin sinatuta dugun kontratua beste urte baterako luzatzea proposatzen du Gizarte Ongizate Batzordeak, 2010ko prezioei KPI aplikatuz (2,8%).”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

PP, EB et ALKARBIDEko ordezkariak proposamenarekiko adostasun azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros con el incremento del 2,8 estamos de acuerdo, pero con lo que se refiere a la prórroga de contrato con GOXARA, estamos en contra, porque ya en su día tuvimos discrepancias con esta empresa, ya que se le pagó por unas horas que no había prestado en el servicio de ayuda a domicilio. En la nueva licitación también dijo que los precios eran muy ajustados y que tal vez tendría problemas, pero a pesar de todo se le adjudicó el servicio. Nosotros, estando de acuerdo en incrementar con arreglo al IPC, nos vamos a abstener por la discrepancia que en su día manifestamos.”

Alkate jaunak (EAJ): “Fernando también pasasteis de republicanos a monárquicos. ¡Algún día hay que cambiar!. ¿Vamos a seguir toda la vida con el mismo tema.?”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (PSE-EE/PSOE)

Beraz, gehiengo absolutuarekin proposamena onartu da.

- Kale hezitzaile eta eskuartze familiarra.

Alkate jaunak, Malu Valles, gizarte-ongizate batzordeburuari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

*“Gizarte Ongizate Batzordeak proposatu du Ingurune irekiko programa eta Esku-hartze familiarra programa emateko Lorratz Elkartearekin sinatuta dugun kontratua beste urtebeterako luzatzea, 2010eko prezioei KPI aplikatuz (% 2,8).*

*Horrela, 2011karako prezioak hauek izango dira:*

- 1.- Ingurune irekiko programa: 80.091,11€ urtekoa.*
- 2.- Esku-hartze familiarren programa:*
  - Terapia indibidualaren saioa: 35,98€*
  - Terapia familiarren saioa (terapeuta 1): 61,26€*
  - Terapia familiarren saioa (2 terapeuta): 105,80€*
  - Terapeutaren koordinazio eta ebaluaketa saioa: 35,98€*
  - Hezitzaileen ordua: 22,84€*
  - Hezitzailearen koordinazio eta ebaluazio ordua: 22,84€*
  - Ikerketa eta proiektua egiteko ordua: 35,98€”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**6.- KONTRATUA ALDATZEA.** 8. Sektoreko iparraldeko lursailarekiko urbanizazio obrei buruz, kontratua aldatzea.

Alkate jaunak Aitor Aldasoro jaunari hitza eman dio eta honek hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: 8. Sektoreko Iparraldeko lursailaren urbanizazio obrak exekutatzeko kontratuaren aldatzea.**

*1.- 2008ko azaroaren 10eko datarekin, “UTE SECTOR 8”, “CAMPEZO CONSTRUCCIÓN, S.A. ELEKTRA, S.A., UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982” enpresarekin kontratu administratiboa sinatu zen, 8. Sektoreko urbanizazio obrak (iparraldeko lursaila) exekutatzeko, 2.101.447,24 €tan, BEZ kanpo. Kopuru horretatik, 1.961.647,25 € urbanizazio obrei dagokie eta 139.799,98 € berriz, kolektorearen trazatuari.*

*2.- Aldez aurretik obren zuzendaritzak txostena emanda, adieraziz obrak exekutatzerakoan aldatetak egin behar izan direla iparraldeko lursailean, batez ere, Uraren Agentziak eta Iberdrolak ezarritako baldintzen ondorioz, Hirigintza Proiektuaren aldatzea onartzen da, 2.520.174,12 €ko aurrekontuarekin, BEZik gabe. Aldatutako Hirigintza Proiektuak ez du aurreikusten kolektorearen trazatua, aipatutako aldatetek ez dutelako berarengan eraginik. Horren ondorioz, kolektorearen trazatuarekiko, 2007ko azaroaren 9an onartutako Hirigintza Proiektuan jasotzen dena da kontutan izan beharrekoa.*

**3.-** Aldaketak esleitutakoarekiko %19,93ren obra-unitate gehikuntza suposatzen duenez, beharrezkoa da adjudikaziodunarekin sinatutako kontratu administratiboa aldatzea.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** “UTE SECTOR 8”, “CAMPEZO CONSTRUCCIÓN, S.A. ELEKTRA, S.A., UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982”, enpresarekin sinatutako kontratu administratiboa aldatzea, adieraziz exekutatu beharreko obrak hauek izango direla: 2010eko data duen Urbanizazio Proiektuan aurreikusitakoak gehi kolektorearen trazatuari dagozkionak, hain zuzen ere, 2007ko azaroaren 9an onartutako Hirigintza Proiektuaren eranskinean jasotzen direnak.

**Bigarren.** Hori dela eta, enpresa adjudikaziodunari ordaindu beharreko kopurua, **2.659.974,10 €koa da** (2.520.174,12 € urbanizazio obrarenak + 139.799,98 € kolektorearen trazatuarenak), **BEZ kanpo.**

**Hirugarren.** Ebazpen honen berri, denboraldirako enpresa elkartearen ordezkariari ematea, idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita eta hamabost eguneko epean bere interesei dagokiona adierazi dezan. Epe horretan ez bada inolako alegaziorik aurkezten, erabakia behin betikoa bihurtuko da eta horren ondorioz, kontratua sinatu egin beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

## **7.- IKASLAN FORMAKUNTZA ZENTROAREN FUNDAZIOAN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

Alkate jaunak, ondorengo proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: IKASLAN Hezkuntza Zentro Fundazioan, ordezkariak izendatzea.**

GOIEKItik jakinarazten digute azken hamar urteotan, Goierriko Herrien Ekintza eta IKASLAN Hezkuntza Zentro fundazioetako karguen berrikuntzak ez direla inskribatu eta horrek Fundazio-Erregistroan etena suposatu dezakeela.

Horren ondorioz, fundazioak erregistroan erregularizatzeko asmoarekin errekeritzen digute, **IKASLAN Hezkuntza Zentro Fundazioan** ordezkarien izendapenari buruzko erabakia igortzea.

2007ko irailaren 27an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren arabera, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioan, Beasaingo Udalaren ordezkariak izendatu zituen, baina ez zen inolako erabakirik hartu IKASLAN Hezkuntza Zentro Fundazioan buruz, ez zelako ezagutzen horren beharra fundazio horri buruz.

*Egindako errekerimenduari erantzunez, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:*

**IKASLAN Hezkuntza Zentro Fundazioan**, ordezkari titularra eta ordezkoa, hurrenez hurren ondorengoak izendatzea:

**PATXI PLAZAOLA MUGURUZA  
FERNANDO BOADA GONZÁLEZ'**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ALKARBIDEko ordezkariak esan dute, abstenitu egingo direla.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ, PSE-EE/PSOE, EB, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (ALKARBIDE)

Beraz, gehiengo absolutuarekin proposamena onartu da.

**8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.** 2010eko azaroaren 30etik 2011ko urtarrilaren 31ra.

Ezagutzera eman dira, Alkate jaunak, 2010eko azaroaren 30etik 2011ko urtarrilaren 31ra emandako ebazpenak.

### **9.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkezten dira:

#### **ARANA KALEKO ETXEBIZITZAK**

Josi Insausti jaunak (ALKARBIDE): "Plan de Rehabilitación. En la última comisión se habló de que había dificultades, retrasos administrativos, etc. Está acabando la legislatura y en este momento nos gustaría saber el futuro de todo el plan que se había previsto y en que situación está a día de hoy, máxime cuando algunos ya habían hecho algún desembolso.

Alkate jaunak (EAJ): "Esos temas corresponden a la comisión de seguimiento de la calle Arana, que la tenemos que convocar en el primer trimestre del año, y se informará de todos esos puntos. Yo lo que se es que hay dificultades, pero se están desatascando. En algunas comunidades van a iniciar obras para instalación el ascensor y para arreglo de la fachada. Las

comunidades de propietarios son los que están llevando el tema y nosotros lo que hacemos es servir de apoyo. En este momento va a empezar con las obras la comunidad de Iturrioz, 10 y el 8 también quiere empezar con el ascensor.”

## UN RUEGO Y DOS PREGUNTAS

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “En el documento que se nos manda de las resoluciones de Alcaldía, los asuntos vienen mutilados. Por el espacio que hay, parece que no entra toda la frase cuando es de más de una línea. Pediríamos que se nos facilitara de manera que podamos saber de qué se trata.

Idazkariak esan du hemendik aurrera beste formato batean inprimatuko dituela, ikusi ahal izateko ebazpenen gaia.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “A lo largo de la legislatura, cuando se ha finalizado la ejecución de una obra, ha habido distintos criterios para inaugurar o no. Hay cuatro casuísticas que se han dado en no mucho tiempo. Una ha sido la obra del carril bici, a la altura de katea kalea. Hay se hizo una inauguración oficial. Sin embargo, dentro del PLAN-E, ha habido una reestructuración del euskaltegi municipal, del EPA y de las oficinas municipales. En el euskaltegi se hizo una inauguración con convocatoria y que se dio a conocer en la prensa. Quien invitaba era el presidente de la comisión de euskera, y hablando con Alcaldía modificó el primer planteamiento y se notificó a los portavoces de los grupos y a la Delegación y Subdelegación de Gobierno que era quien había aportado el dinero. Pasamos a la siguiente inauguración, que es el EPA y resulta que se nos dice por parte de Alcaldía que no era inauguración lo que había sino que tenían costumbre todos los años por Navidad, de hacer una pequeña merienda y eso era lo que iban a hacer. Sin embargo, se notifica a la prensa, se presentan allí, porque alguien les invitaría, Alcalde, Teniente de Alcalde, Presidente de comisión de Educación y Cultura, y se hace el aurreku, se inaugura y lógicamente al resto de los grupos ni se informó y menos a la Subdelegación del Gobierno que es quien ha aportado el dinero. La última casuística es la de las oficinas municipales, en la que simplemente se ha puesto en marcha.

Si ese es el criterio, no vamos a inaugurar. Se hacen las obras y se empieza a funcionar, pero no, que en función de quien aporte el capital. Nos gustaría conocer cuando se decide inaugurar y cuando no, máxime cuando estamos en puertas de unas elecciones municipales y todos sabemos quien puede aprovecha para hacerse la campaña. A nosotros nos toca criticarlo y es lo que hacemos.

En los presupuestos teníamos una partida de 100.000 € para retejado y arreglo de fachada del Ayuntamiento. Se ve que se está haciendo esa obra, y

cómo ha habido unas preguntas por parte de algunos ciudadanos de cuales han sido los criterios utilizados para selección de la empresa que está realizando dichas obras, es lo que queremos saber, porque lo cierto es que ha debido de ser contratación directa, ya que quizás este tema haya pasado por la comisión de servicios, desde luego no, por la comisión de urbanismo.”

Alkate jaunak (EAJ): “Sois muy sensibles a las inauguraciones. Respecto al EPA, fue la directora la que quería hacer un lunch, y yo les dije que por lo menos invitaran al Delegado de Educación. Era el día de Sto Tomás y no vino y al Subdelegado todavía no lo habían nombrado. Ellos organizaron y a nosotros nos llamaron.

En cuanto a las oficinas municipales, el Subdelegado está muy interesado en visitar. El viernes que viene, pasaremos con él por algunas instalaciones. El criterio es el siguiente: cuando nos toca hacer algo, procuramos invitar. En el caso concreto de EPA, les dije, pero ellos son los que invitaron. Intentaremos mejorar.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Lo que no tiene lógica es que quien no es propietario pueda inaugurar un edificio. Que los trabajadores que utilizan un edificio sean los que organicen....”

Alkate jaunak (EAJ): “Ellos quisieron aprovechar el día de Santo Tomás que es fiesta, para hacer lo que hacen todos los años.

Respecto a la fachada decir, que en la torre hay un elemento tallado en madera que se estaba pudriendo. Vimos la necesidad de que fuera una casa especializada la que hiciera el retejo. Teníamos la experiencia del Palacio, y por la singularidad de la obra le contratamos a la misma empresa. El resto del retejado es una obra normal y su ejecución se contratará mediante el procedimiento ordinario. Y que se pusieron los andamios se aprovechó para chorrear.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.